



**Fantasiak eta Beldurrezko  
Zinemaren Astea**  
**Semana de Cine  
Fantástico y de Terror**  
**Horror and Fantasy  
Film Festival**



## **OIHUA!** **Fantasiak Zinema Sorkuntza – 4. Deialdia**

### **SARRERA**

Azken urteotan, euskarazko zinemagintzak arrakasta handia lortu du, baita oihartzuna ere nazioartean. Eta, izan ere, fantasiaren generoak izan du horretan zerikusirik, loraldi eta eklosio garai bat ari baita bizitzen, non sortzaile berriak forma ematen ari diren oraingo eta biharko zinemari.

Testuinguru horretan sortu zen 2019an Oihua!, Donostia Kulturak eta Udaleko Euskara Zerbitzuak bultzatutako ekimena. Bere lehenengo edizioan proiektu irabazlea *Zerua hautsi zen gaua* izan zen, María Fontán donostiarrarena, eta Paul Urkijo zinemagilea aritu zen mentore gisa; bigarren deialdian berriz, irabazlea Igor Salutregi izan zen, *Azken partida* egitasmoarekin. Kasu honetan mentore lanetan Maider Oleaga zinemagilea izan zen. Eta azken deialdian Eneko Muruzabalen *Planetagatik* proiektua burutzeko Igor Legarreta zuzendaria izan zen mentorea.

### **DEIALDIAREN XEDEA**

Deialdiaren helburua euskarazko fantasiak gidioen sorkuntza sustatu eta saritzea da. Horretarako, aurkeztutako proiektuen artean testu irabazlea gauzatu eta film labur bat ekoiztea eta zuzentzeko beharrezko laguntza eskaintzea proposatzen da, Larrotxene Bideo-ren tutoretzapean. Gauzatuko den film laburra, gainera, 2026ko Donostiako Fantasiak eta Beldurrezko Zinemaren 37. Astean estreinatuko da.

### **PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

- Euskaraz idatzitako gidoi originala izatea; ez dira itzulpenak onartuko.
- Deialdia sortzaile berriei zuzendua da. Sortzaile berritzaile ulertzen da modu komertzial batean banatutako fikziozko ikus-entzunezko obrarik idatzi, zuzendu edo egin ez duen pertsona oro.
- Deialdia pertsona fisiko banakakoei soilik zuzentzen zaie. Ezin izango dira aurkeztu beren ideia batera garatu nahi duten kolektiboak.
- Aukeratutako hautagaiak erabakiko du bere gidioa zuzendu nahi duen ala ez, bere interesaren eta prestasunaren arabera. Hala ez bada, antolakuntzak bermatuko du gidoiaren zuzendaritza.



**Fantasiako eta Beldurrezko  
Zinemaren Astea**  
**Semana de Cine  
Fantástico y de Terror**  
**Horror and Fantasy  
Film Festival**



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
kultura

- Film laburraren filmaketa osoa Gipuzkoako Lurralde Historikoan egin beharko da.

## SARIA

Proiektu hautatua hurrengo ekarpen hauekin sarituko da:

**Aholkularitza**, bai kreatiboa bai teknikoa, gidoigintzan eta zuzendaritzan

**Bidelaguntza** aurreprodukzio eta filmaketa antolaketa prozesuan zehar.

**Talde teknikoa**, ikus-entzunezkoaren arloko ikasle eta profesionalak osatua, film laburraren grabaziorako eta postprodukziorako; taldea Larrotxene Bideo komunitateko kideez osatua izango da.

Larrotxene Bideoko beharrezko **azpiegitura eta materialak**, film laburra filmatu eta editatzeko.

**Produkzio gastuetarako** diru-poltsa, Larrotxene Bideok kudeatua, gehienez 10.000 € (BEZ barne) artekoa izango dena.

San Sebastian-Gipuzkoa Film Commission-en **laguntza eta aholkularitza** aurreprodukzio eta produkzio fasean: lokalizazioak bilatzeko eta filmaketa egiteko behar izango diren baimenak lortzeko laguntza.

**Mentore profesional** baten laguntza zuzena, lau lan-saioetan zehar, proiektuak behar duen alderdiaren gaineko begirada eskaintzeko (2019an Paul Urkijo, 2021ean Maider Oleaga; 2023an Igor Legarreta izan ziren mentoreak). Film laburraren kalitatea bermatzeko, aholkularitza taldeak gaitasuna izango du erabaki egokiak hartzeko, bai kreatiboak bai produktibokoak, irabazleak onartu beharrekoak.

Ekoiztuko den film laburra 2026ko **Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea-ko programazioaren** parte izango da. Hautatutako egilea filmaren kredituetan agertuko da, prozesuan bete duen zeregina akreditatuz.

Idea hautatuari **300 €-ko ordainsaria** emango zaio, gidoia sinatu duen pertsonari egindako egile-eskubideen ordainketa kontzeptuan.

Film laburrak **Larrotxene Bideoren produkzio** baten tratamendua izango du, zinemaldietan inskribatu eta sari posibleak jasotzeko ondorioetarako.

## BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA ETA ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Dokumentazio guztia, idatziak eta grafikoak, posta elektronikoz bidali behar da helbide honetara: [larrotxene\\_bideo@donostia.eus](mailto:larrotxene_bideo@donostia.eus), gaian Oihua! deialdia idatzita. Eskatzaileak mezu bat jasoko du dokumentazioa jaso izana konfirmatuz, inskripzioa zuzen egin dela ziurtatzeko.

Honakoa da izen-emate eskaeran gaineratu beharreko dokumentazioa:

Gehienez 20 minutuko film laburraren gidoia (gehienez 20 folio, DIN A4 formatuan eta courier new 12 letra-tipoarekin), beldurraren, fantasiaren eta/edo zientzia fikzioaren generoen barruan. Ez da animaziozko proiekturik onartuko.



**Fantasiak eta Beldurrezko  
Zinemaren Astea**  
**Semana de Cine  
Fantástico y de Terror**  
**Horror and Fantasy  
Film Festival**



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
kultura

Eskatzailearen datu osatuak:

NAN fotokopia

Curriculum vitae

Motibazio gutuna (gehienez 3.000 karaktere)

Estekak aurretik egindako ikus-entzunezko lanei, halakorik balego

Hautagaitzak aurkezteko epea **2025eko abenduaren 30ean amaituko da, 24:00etan**.  
Deialdiari buruzko informazio gehiago jaso nahi izanez gero, hona hemen kontaktua:  
[larrotxene\\_bideo@donostia.eus](mailto:larrotxene_bideo@donostia.eus).

## PROIEKTU IRABAZLEAREN HAUTAKETA

Hautaketa batzorde bat eratuko da eskaerak aztertu eta ebaluatzeko. Batzordea osatuko dute Fantasiak eta Beldurrezko Zinemaren Asteko, Larrotxene Bideoko eta Udal Euskara Zerbitzuko kide bana.

Batzordeak hurrengo irizpideen arabera baloratuko ditu proiektuak:

Proposamenaren sormena eta kalitate artistikoa.

Proposamenaren bideragarritasuna produkzioaren ikuspegitik.

Euskararen erabilera egokia.

Jasotako gidioen artetik proposamen bakar bat hautatuko da. Hautaketa batzordeak aukera izango du bigarren gidoi bat ere hautatzeko, ordezeko gisa, baldin eta irabazle bezala hautatutako egileak uko egingo balu edo ordezkatu beharko balitz. Irabazlearen partaidetza egiaztatzerakoan, erreserbako gidoi horik ere suntsituko da.

Ebazpena telefonoz jakinaraziko zaio hautatutako pertsonari, **2026ko urtarrilaren 30a** baino lehen. Bestetik, data horretatik aurrera, web orri hauetan ere kontsultatu ahal izango da: [www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus) eta [www.sansebastianhorrorfestival.eus](http://www.sansebastianhorrorfestival.eus)

Batzordearen erabakia apelaezina izango da.

## BESTE BATZUK

Proiektu honetan parte hartzeak bertan biltzen diren oinarriak onartzea dakar berekin. Saria onartzeak gidoiak ustiatzeko eskubideak lagatzea dakar berekin, egileari dagozkion eskubide moralei kalterik egin gabe. Proiektuaren kredituetan behar bezala adieraziko da deialdi honetan hautatutako pertsonaren titulartasuna.



**Fantasiak eta Beldurrezko  
Zinemaren Astea**  
**Semana de Cine  
Fantástico y de Terror**  
**Horror and Fantasy  
Film Festival**



Ebazpen honetan ezarritako betebeharrak beteko ez balira, ez-betetzetzat joko da, eta irabazleak jasotako ekarpenak itzuli beharko ditu. Oinarri hauetan jaso ez den edozein gairen aurrean erabakitze gaitasuna Donostia Kultura EEPren esku egongo da.

Pertsona onuradunak errespetatu egin behar du proiektua aurrera eraman ahal izateko sarbidea izango duten informazioaren izaera konfidentziala, baita izaera hori ematen zaion edo berez duen izaeragatik halakotzat hartu behar den informazioa ere.